

udal**top**

II. Udaltop Topaketak  
**Balorazio balantzea**

2010-05-20

Antolatzaileak



**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera >

KULTURA ETA EUSKARA  
DEPARTAMENTUA



Lasarte-Oriako  
Udala

Laguntzaileak

**EUDEL**

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako  
Saiburuordetza



## **AURKIBIDEA**

1. Sarrera
2. Matrikulazio datuak
  - Lurraldeka
  - Gipuzkoako teknikariak
3. Parte-hartzaileen balorazioak
  - Datu orokorrak
  - Parte-hartzaileen ekarpenak
  - Eranskina I
4. Komunikazioa
  - Topaketen prestaketa
  - Topaketen aurkezpena
  - Matrikulazio garaia
  - Topaketen irekiera ekitaldia
  - Bloga eta webguneko estatistikak
5. Sortu den materiala
  - Ponentziak
  - Materialen biltegia
6. Azpiegiturak
7. Kudeaketa
8. Datorren urtera begira gakoak
9. Eranskinak
  - I. Eranskina: Parte-hartzaileen ekarpenak
  - II. Eranskina: Datorren urterako gaiak

**1 - Sarrera**

Apirilaren 21ean eta 22an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean II. Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak gauzatu ziren. Topaketak, Lasarte-Oriako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu zituzten eta Eusko Jaurlaritzaren eta EUDELen laguntza izan zuten.

Ia urte erdiko lana suposatu dute topaketek, baina aurten iazko esperientziaren abantaila genuen, eta iazkoak arraskatsuak izan baziren, aurtengoek arrakasta gehiago izan dutela esatera ausartu gaitezke.


Iaz, familia bidezko transmisioa izan zen landutako gaia eta aurtengoa, berriz, *Nerabeak, aisia eta lagunartea: Zer eta nola egin daiteke udaletatik nerabeek aisia eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?*

Hizlariak Pello Jauregi (HUHEZI), Aritza Escandon (Kultur Kabia), Jaime Altuna (Urtxintxa), Ramun Etcheberry eta Estelle Gogni (Seaska), Jon Aizpurua (HPS), Luistxo Fernandez (CodeSyntax), Gorka Julio (Elurnet), Maite Alvarez eta Iñaki Lopez (Bermeoko Udala), Alberto Irazu (Gaztezulo), Aitor Uriarte eta Ixabel Zuaznabar (Ttakun Kultur Elkarte) eta Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra) izan dira aurtengo edizioan.

**2 – Matrikulazio datuak**

- Lurraldeka:

	Gipuzkoa		Bizkaia		Araba		Nafarroa		Lapurdi	
	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010	2009	2010
Euskara teknikariak	%45,4 (25 lagun)	%52,8 (28 lagun)	%25,4 (14 lagun)	%20,7 (5 lagun)	%10,9 (6 lagun)	%7,55 (4 lagun)	%18,1 (8 lagun)	%13,2 (7 lagun)	--	%5,7 (3 lagun)
Bestelakoak	%70 (42 lagun)	%69,8 (44 lagun)	%11,6 (7 lagun)	%17,5 (11 lagun)	%11,6 (7 lagun)	%12,7 (8 lagun)	%6,66 (4 lagun)	--	--	--
25 urtetik behera eta ikaslea	--	%2,5 (3 lagun)	--	--	--	--	--	--	--	--



- Gipuzkoako euskara teknikarien jatorria:

Bailara	Herriak	2009	2010
Urola Kosta	Zumaia eta Zarautz	4	2
Goierrri	Ordizia	2	1
Oarsoaldea	Pasaia, Errenteria, Oiartzun eta Lezo	3	4
Tolosaldea	Ibarra, Villabona eta Tolosa	3	3
Debagoiena	Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bergara	3	4
Bidasoa	Irun	2	3
Debabarrena	Deba, Elgoibar, Soraluze eta Eibar	4	4
Donostialdea	Donostia	2	2
Buruntzaldea	Andoain, Hernani, Lasarte-Oria...	2	2
Urola Garaia	Urretxu eta Legazpi	--	2
<b>GUZTIRA</b>		25	27

### 3 – Parte-hartzaileen balorazioak

- Datu orokorrak:
  - Guztira, 39 balorazio jaso dira
  - Jasotako datuen laburpena (1 aukera oso gaizki adierazteko erabili da eta 5 aukera bikain adierazteko):

	1	2	3	4	5	NOTA
Hitzaldiak	-	-	5	30	4	3.97
Talde-lanaren dinamizazioa	-	-	8	19	10	4.05
Esperotakoa jaso	-	1	8	25	5	3.87
Parte-hartzearen sustapena	-	1	3	25	10	4.13
Topaketak oro har	-	-	2	25	11	4.24
Sare-sozialak erabiltzea	-	2	6	11	19	4.24

- Parte-hartzaileen ekarpenen aukeraketa:
  - Ongi egin dena:
    - Hitzaldietarako jarri den denbora, motzak eta zehatzak.
    - Hitzaldietako gaiak oso aproposak.
    - Ponentziak aurrez webgunean zintzilikatzea.
    - Iparraldeko esperientziari lekua egitea oso positiboa.
    - Talde-lana oso interesgarria eta aberasgarria.
    - Ezaugarri berekoak taldetan elkartzea oso ideia ona.
    - Espero baino jardunaldi interesgarriagoak.
    - Parte hartzeko bideak etengabe jarri dira.
    - Topaketen metodologia ona: aurretik eta ondoren gaia landu behar.
    - Urtean behin halako topaketak beharrezkoak teknikariontzat: elkarren berri izan, ideia berriak hartu...
    - Ondo antolatuta egon da dena. Gogotsu egindako lana dela nabaritu da.
    - Topaketen formatua oso egokia.
    - Gaia eta edukiak egokiak eta oso interesgarriak.
    - Topaketak sare sozialetara zabaltzea oso egokia eta beharrezkoa.
    - Antolaketa oso ona eta aretoko audioa bikaina.
  - Hobetzeko proposamenak:
    - Testuetan esandakoa errepikatu dute zenbaitzuk, hitzaldi batzuk ez dute ezer berririk eskaini.
    - Zenbait ponentzia (Gaztezulo, Urtxintxa) laburregi geratu dira.
    - Ttakunen eta Soziolinguistika Klusterraren hitzaldiek denbora gehiago behar zuten.
    - Talde-lanari denbora gehiago ematea eta emaitzak topaketan bertan ematea.
    - Matrikula egitean talde-lanean parte hartuko al duen galdetzea. Zenbait talde motzak gelditu ziren.
    - Sare sozial bakoitzaren inguruko azalpen laburra eman behar zen.
    - Behin baino gehiagotan ponenteak presaka nabaritu.
    - Galderetarako tarte gutxi, azalpenekin luzatu diren kasuetan.
    - Topaketa luzeagoak.
    - HPSri inplikazio gehiago eskatu (topaketak antolatzeko ez).
    - Manuel Lekuonako aulkiak txarrak eta argi gutxi.
    - Umore punttua falta topaketei.
    - Topaketak ostegun eta ostiralean izatea.
    - Egitaraua karpetan egotea.

## 4 – Komunikazioa

- Topaketen prestaketa (2009-11-24)
  - Bloga martxan jarri zela iragartzeko prentsa-dosierra bidali zen komunikabideetara (euskaraz)
  - Parte-hartzaileen datu-basera ere mezua bidali zen blogaren eta sare sozialen (Facebook eta Twitter) berri emanez. Argibide guztiak irudiekin osatu ziren eta pausoz pauso azalpenak eman ziren.
  - Komunikabideetako oihartzuna:
    - [Hasiak dira UDALTOP-2010 prestatzeko lanak](#) (Gipuzkoa Euskara, 2009-11-24)
    - [Udaltop bloga aurkeztu dute](#) (Argia.com, 2009-11-25)
- Topaketen aurkezpena (2010-02-19)
  - Prentsa-deialdia bidali komunikabideetara (euskaraz)
  - Prentsaurrekoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren prentsa-aretoan.
  - Ostirala izanik kazetari oso gutxi agertu (Teledonosti eta Euskadi Irratia)
  - Prentsa-dosierra eta argazkia (euskaraz eta gazteleraz) bidali komunikabideetara.
  - Komunikabideetako oihartzuna:
    - [Udaltop 2010: nerabeen aisia eta lagunartea](#) (Gipuzkoa Euskara, 2010-02-19)
    - [Udaltop: euskara teknikari eta arduradunen topaketak](#) (Gipuzkoa TV, 2010-02-19)
    - [Udaltop: jornadas sobre servicios municipales de euskera](#) (Gipuzkoa TV, 2010-02-19)
    - [El 21 y 22 de abril, segunda edición de Udaltop](#) (Diario Vasco TV, 2010-02-19)
    - [Udaltop II. topaketen egitaraua prest](#) (HABE Ikasbil, 2010-02-19)
    - [Udaltop II. topaketen egitaraua prest](#) (Argia.com, 2010-02-19)
    - [Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak aurkeztu dituzte](#) (Sustatu, 2010-02-22)
    - [Udaltop II. topaketak apirilaren 21ean eta 22an](#) (Bizkaie, 2010-02-22)
    - [Nerabeak eta euskara aztergai Udaltop topaketen II. edizioan](#) (Txintxarri, 2010-02-22)
    - [Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak aurkeztu dituzte](#) (Buruntzaldea Euskaraz, 2010-02-22)
    - [Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak aurkeztu dituzte](#) (Euskararen Berripapera-HPS, 2010-02-24)
- Matrikulazio garaia (2010-02-22)
  - Komunikabideetara (Diario Vasco, Berria, Gara eta Noticias de Gipuzkoa) telefono deiak egin matrikulazioaren berri emateko.
  - Prentsa-dosierra (euskaraz eta gazteleraz) bidali bigarren aldiz komunikabideetara.
  - Publizitate inserzioak Berria egunkarian eta Argia aldizkarian. Argia.com-en interstitala jarri zen hainbat egunez.
  - Komunikabideetako oihartzuna:
    - [Udaltop II. topaketetarako izena ematea zabalik dago](#) (Berria, 2010-03-19)
    - ["Udaltop" jardunaldietarako izen-ematea bihar itxiko da](#) (Noticias de Gipuzkoa, 2010-03-21)

- Topaketen irekiera ekitaldia eta ondoren (2010-04-21)
  - Prentsa-deialdia bidali komunikabideetara (euskaraz)
  - Bertan izandako komunikabideak:
    - ETB
    - DV-Comarca
    - Txintzarri
    - Teledonosti
    - Berria
    - DV-Cultura
  - Komunikabideetako oihartzuna:
    - [Udaltop topaketak: "Zer egin daiteke udaletatik nerabeek aisia euskara gehiago erabiltzeko?"](#) (Argia.com, 2010-04-21)
    - [Nerabeen aisia eta euskara aztergai](#) (Txintzarri, 2010-04-21)
    - ['Nerabeen aisia eta lagunartea' gaiaren harian, abian Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak](#) (Bizkaie, 2010-03-21)
    - [«Ezin dugu erantzun nerabeek egiten ez dutena edo egingo ez dutena eskainiz»](#) (Berria, 2010-04-22)
    - [Udaltopen II. Topaketak hasi dira](#) (Diario Vasco, 2010-04-22)
    - [«Euskara txukun bat egiteko presioa nabaritu dugu»](#) (Diario Vasco, 2010-04-22)
    - [Ttakun-eko arduradunak hitz egin zuten Udaltop jardunaldietan](#) (Diario Vasco, 2010-04-23)
    - [Nerabeak eta euskara aztergai Udaltop-en](#) (Txintzarri, 2010-04-23)
    - [Udaltop 2010. Pello Jauregiren yin-yang-ak](#) (Argia.com, 2010-04-23)
    - [Udaltop 2010. Kultur Kabia nerabe arrantzan](#) (Argia.com, 2010-04-26)
    - [Udaltop 2010. HezHiz-en lau hankak](#) (Argia.com, 2010-04-27)
    - [Udaltop 2010. Gazteak sare sozialetan](#) (Argia.com, 2010-04-28)
    - [Udaltop 2010. 'Gaztezulo'ren esperientzia](#) (Argia.com, 2010-04-29)
- Bloga eta webgunearen estatistikak
  - Sare sozialetako jarraitzaile kopurua
    - Twitter: 21 jarraitzaile.
    - Facebook: 157 lagun.
  - Sare sozialen bidez artikuluen kontsulta kopurua
    - Blogean guztira 15 artikulua argitaratu dira. Bit.ly webgunea erabili dugu helbide luzeak ekiditeko.
    - Guztira, 117 kontsulta izan dira.
    - Artikulu kontsultatuena "[Udaltop Udaletako Euskara-Zerbitzuen II. Topaketak aurkeztu dituzte](#)" izan da (23 kontsulta).
  - Webguneko sarrera eta bisita kopurua (Apirila 2010)
    - Apirilean eguneko bisita kopurua batez beste **143koa** izan da.
    - Bisita gehien izan duen eguna: apirilak 20a – **290 bisita** (%6.74)
    - Bisita gutxien izan dituzten egunak: apirilak 1a eta 3a – **91 bisita** (%2.11)
    - Apirileko bisita kopurua egunez egun:

	Bisitak	Portzentajea
1	91	%2.11
2	102	%2.37
3	91	%2.11
4	109	%2.53
5	101	%2.35
6	148	%3.44
7	140	%3.25
8	124	%2.88
9	140	%3.25
10	113	%2.63
11	106	%2.46
12	174	%4.04
13	169	%3.93
14	182	%4.23
15	151	%3.51
16	166	%3.86
17	103	%2.39
18	122	%2.84
19	192	%4.46
20	290	%6.74
21	199	%4.62
22	173	%4.02
23	195	%4.53
24	120	%2.79
25	98	%2.28
26	157	%3.65
27	146	%3.39
28	149	%3.46
29	132	%3.07
30	129	%3
31	137	%2.83
Batez beste	143	%3.31

- [www.udaltop.com-en](http://www.udaltop.com-en) bisita kopurua urte osoan (2009-2010)

	Hileko bisitak	Bisitatutako orriak
*Maiatza 2010	1.303	3.810
Apirila 2010	4.303	13.812
Martxoa 2010	4.836	16.629
Otsaila 2010	3.515	9.536
Urtarrila 2010	2.989	5.409
Abendua 2009	3.282	5.956
Azaroa 2009	1.716	5.189
Urria 2009	1.119	2.404
Iraila 2009	1.203	3.162
Abuztua 2009	1.376	3.484
Uztaila 2009	1.664	4.565
Ekaina 2009	853	1.866
Maiatza 2009	1.412	7.166
Apirila 2009	1.197	10.951
Martxoa 2009	856	4.220
Otsaila (12tik aurrera) 2009	411	666
Batez beste	2.850	9.948

\* Maiatzaren 11 bitarteko datuak.

## 5 – Sortu den materiala

- **Ponentziak:** Ponentzia bakoitzaren eta hasierako eta amaierako ekitaldien **bideoak** (13 guztira), **diaporama** bat, **argazkiak** (27 guztira), **aurkezpeneko dokumentuak** eta ponentziak zintzilikatu dira. Zenbait kasutan parte-hartzaileek bidalitako **galdera eta ponentearen erantzuna** ere zintzilikatu dira. **Talde-laneko emaitza** ere zintzilikatu da.
  - "Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta" (Pello Jauregi, HUHEZI)
  - "Euskararekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak" (Aritza Escandon, Kultur Kabia)
  - "HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak" (Jaime Altuna, Urtxintxa)
  - "Glisseguna: Ipar Euskal Herriko gazteei zuzendua den surf/skate eguna" (Ramun Etchebrry eta Estelle Gogni, Seaska)
  - Ikerketa: "Gizarte-Sareak eta Euskara 2.0" (Jon Aizpurua, HPS)
  - Elkarrizketa: "Sare sozialak, nerabeak eta euskara" (Gorka Julio eta Luistxo Fernandez, Elurnet eta CodeSyntax)
  - "Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituretan eragiteko. Bermeoko esperientzia" (Maite Alvarez eta Iñaki Lopez, Bermeoko Udala)
  - "Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: Gaztezuloren esperientzia" (Alberto Irazu, Gaztezero aldizkariko zuzendari ohia)
  - "Maitatu euskaraz" (Aitor Uriarte eta Ixabel Zuaznabar, Ttakun Kultur Elkartea)
  - "Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan" (Asier Basurto, Soziolinguistika Klusterra)
- **Materialen biltegia**
  - Sare sozial birtualak (Txatxilipurdi)
  - Sare sozial birtualak: gazte txokoetako hezitzaileentzat gida (Txatxilipurdi)

- Sare sozial birtualak: ludoteketako hezitzaileentzat gida (Txatxilipurdi)
  - Llengua i joventut I (1978-1999) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística)
  - Llengua i joventut II (2000-2008) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística)
  - Llengua i joventut. Obres seleccionades i comentades (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística)
  - Euskadiko gazteak 2008 (Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak)
- **Bloga**
    - Blogean 15 artikulu argitaratu dira.

## 6 – Azpiegiturak

- 2010eko II. Udaltop Topaketak Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean gauzatu dira. 2009ko I. topaketetako azpiegitura berdina erabili dira, hain zuzen ere. Aretoa nagusia erabili da ponentzietarako eta amaierako kultur ekitaldirako. Talde-lanerako kultur etxeko hainbat gela erabili dira eta atsedenaldirako, berriz kafetegia.

Aurten izan den berrikuntza aipagarriena bideo-proiektagailuaren kokapena izan da. Hau da, iaz eskenatokian bertan kokatu zen, pantailaren aurrean. Aurten ordea, antzokiko bigarren solairuan kokatu da eta pantaila, berriz, aurreratu egin dugu. Horri esker irudien kalitate hobea lortu da.

Bestalde, hizlarien mahaia eskenatokiaren erdian kokatu dugu eta iaz jarri genuena baino handiagoa izan da aurtengoa. Ondorioz, topaketen irudia daraman mahaiaren aurreko euskarria berritu egin da, iazkoak baino kalitate hobea lortuz.

Iaz kultur etxearen sarreran jarri zen *rollerra*. Aurten bigarren bat prestatu dugu eta eskenatokian ere jarri dugu.